ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2024

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25koa
22/05/2024

EUSKAL HIZKUNTZA

EPAI MAHIA ZBKº1

KALIFIKAZIOA

DEITURAK: ----------

IZENA: ----------

NANa/AIZ: ----------

Nik sinesten dut gorputzaren barru-barruan badagoela denok konpartitzen dugun leku komun bat. Putzu sakon baten pare. Bertara ezin gaitezkeela joan hezur eta haragi, baina iritsi gaitezkeela haraino, eta elkarrekin egon. Telepatia edo. Batez ere, espazio publiko jendetsuetan nagoenean saiatzen naiz horra joaten. Trenean edo ospitaleetako itxarongelan, adibidez. Begiak ixten ditut, tunel luze eta ilun batean barneratu, eta halako batean galdera egiten dut: ba al dago inor hor?

Donostiara trenean nindoan. Ni bakar-bakarrik, eta bagoia bete-bete. Begiak itxi, tunelean sartu eta galdera bota nuen. Halako batean «kaixo» bat entzun nuen. Begiei eutsi ezinda ingurura begiratu nuen. Parekoak, eskuinekoak, haragokoak, denak zebiltzan mugikorrarekin. Ahots hark barru-barruko putzukoa behar zuen. «Ikusten zaitut». Ezaguna egiten zitzaidan ahotsa, baina norena zen asmatzen ibili baino hariari eutsi nahi nion, «Jaitsiko gara hurrengo geltokian?», galdetu nion mentalki. «Ados», erantzun zidan. Eta geltoki hartan jaitsi nintzen nora nindoan ahaztuta, norabait iritsi nintzen ziurtasunez.

Maialen Akizu, *Berria,* 2024ko otsailaren 09a

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2024

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25koa
22/05/2024 **EUSKAL HIZKUNTZA**

1. IZENBURUA. Ipini izenburua testurari (p1).
2. EGITURA Banatu testua zatitan eta atera ideia nagusiak eta bigarren mailakoak. (2p).
3. TESTUAREN LABURPENA. 4-5 lerro gehienez. (2p) .
4. BERRIDATZ EZAZU AZPIMARRATUTA DAGOENA ESANAHIA ALDATU GABE (2P) .
5. TESTUAREN IRUZKIN EDO BALORAZIO PERTSONALA (2p).
6. ZUZENTASUNA ETA ORTOGRAFIA (1p).

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2024

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25koa

22/05/2024 **EUSKAL HIZKUNTZA**

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA 2024

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25koa
22/05/2024

EUSKAL HIZKUNTZA